

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Foru Gobernuak Gestión Ambiental de Navarra SA sozietate publikoaren bideragarritasuna ziurtatzearen aldeko apustua egin du

Enpresari eta CPENi langileen kaleratzea deuseza deklaritzen zuen epaia ez errekurritzeko borondatea duela helarazi die, bai eta formula malguak bilatzeko ere emandako 1 milioi euroko mailegua itzultzeko

Lunes, 17 de agosto de 2015

Nafarroako Gobernuak Gestión Ambiental de Navarra SA (GAN) sozietate publikoaren bideragarritasun ekonomikoa eta lan-bideragarritasuna ziurtatzearen aldeko apustua egin du; beraz, langileen kaleratzea deuseza deklaritzen zuen epaia ez errekurritzearen alde agertu da, eta formula malguak bilatzearen alde emandako 1 milioi euroko mailegua itzultzeko.



GAN enpresak ingurumena babesteko zerbitzuak eskaintzen ditu.

Hala helarazi die Foru Gobernuak Corporación Pública Empresarial de Navarra S.L.U. eta Gestión Ambiental de Navarra, S.A. sozietate publikoen administrazio-kontseiluei. Hala, Auzitegi Goreneko lan-arloko Salak emandako epaiaren aurka jarritako errekurtsioetan atzera egiteko eskatzen die. Epaia horren arabera, enplegua murrizteko espedienteak deuseza deklaritzen zen; espediente horrekin, 33 langile kaleratu ziren 2013. urtean.

Alde horretatik, Gobernuak sozietateko eta CPENko arduradunei animatzen die "langileen ordezkariekin hasitako lanarekin jarrai dezaten konpainiak, Nafarroako Gobernuak emandako egungo diru-sarreran oinarrituz, oreka bat lor dezan emaitza eraginkorrari dagokionez. Hori guztia –dio Gobernuak– kontuan hartuz Gobernuaren erakunde instrumental modura konpainiaren jardueraren etorkizunari buruz ezinbesteko hausnarketa egin beharko dela". Alderdi horri dagokionez, Gobernuak ados dago GAN sektore publikoan erreferentzia izan behar duela ingurumena babesteko eta kudeatzeko esparruan kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko garaian.

Mailegurako formula malguak

Gainera, Nafarroako Gobernuak bere prestutasuna adierazi die CPENk GANi iragan ekainaren 1ean emandako 1.050.000 euroko mailegua itzultzeko formula malguak bilatzeko orduan. Izan daitezkeen formulen

artean, Gobernuak kredituaren kapitalizazio guztia edo partziala aipatzen ditu edo printzipalaren amortizazioaren gabealdia zabaltzea; horrenbestez, sozietateak bere egoera orekatzen duenean, kontratuan ezarritako ordainketa-betebeharra GANen errealitateari egokitu ahalko zaio.

Nafarroako Gobernuaren iritziz, "kudeatzaile eta langileen ahalegin partekatua ohiko emaitza eraginkor orekatu bat lortu eta finkatzera bideratu behar da orain eta etorkizunean, eta haren neurketan ez du zentzurik maileguak itzultzeko ondare-betebeharrak aintzat hartzea".

Enpresa: funtzioak eta plantilla

Gestión Ambiental de Navarra S.A (GAN), Gestión Ambiental de Viveros eta Repoblaciones de Navarra S.A-k NAMAINSA eta Echauri Forestal enpresa publikoak xurgatu izanaren ondorioz sortutako enpresa da.

Landa Garapeneko, Toki Administrazioa eta Ingurumeneko Departamentuari atxikitako Nafarroako Gobernuaren sozietate instrumentala da, eta haren jarduera ingurumena babesteko eta kudeatzeko esparruan oinarritzen da. Horretarako, plantillan hainbat profesional ditu ingeniartzan, biologian, ekonomian, ingurumeneko zuzenbidean eta administrazioan.

2013an, GANen Administrazio Kontseiluak enplegua murrizteko espediente bat onartu zuen. Haren barnean, plantilla osatzen zuten 115 langileetatik 65entzat kontratuak iraungitzea sartzen zen: 33, 2013an eta 32, 2014an.

2013an izandako 33 kaleratzeak epaitegien aurrean errekurritu ziren, eta Auzitegi Gorenak baliogabetu egin zituen. Horren ondorioz, sozietateak langileak berriz plantillan sartu zituen, nahiz eta haietatik azkenik 17k enpresatik behin betiko irtetea negoziatu. Gaur egun, 98 langile daude GANen.